

Ez gara mapetan agertzen, baina egunero egunkarietako azalak betetzen ditugu. Beste edozein lurralderen pareko garela diote, baina gure hizkuntzan mintzatzen garenean ez gaituzte ulertzen. Gure artean ezberdinak garela diote, baina ez dago ibai ez eta mendirik banatzen gaituenik.

3.000.000 euskal herritarrek osatzen dugun nazioak Euskal Herria izena du. 21.000 km² barna bizi gara nahiz eta bi estatu eta lau zatitan banatzen gaituzten. Ez gaituzte ulertzen, baina gure izate eta nortasuna ezabatzeko helburuari eusten diote, oso modu eta era ezberdinetan tratatzen gaituzten harren.

Lapurdi Behe Nafarroa eta Zuberoan; Ikurrina mamiz hustu eta folkloreaken baitan ito nahi duten ikur gisa darabilte, betiere izaera ofizialeko kokaguneetatik urrun.

Nafarroa Garaian; Ikurrina legez debekaturiko ikurra da. Beraz ez dago euskal ikur hau eraikin publikoetan agertzerik. Gainera, lurralde hori kudeatzen duten administrazioetatik, eraikin publikoetan espainiar ikurra jartzera behartu nahi gaituzte.

Araba Bizkaia eta Gipuzkoan berriz, Ikurrina, Espainiar agintearen menpeko ikurra dela agertu nahian, legez behartu nahi gaituzte instituzio publiko guztietan Ikurrinaren albean Espainiar bandera jartzera. Eta horren adibideak hiru herrialdetako instituzio ezberdinetan aurkitu ditzakegu, bai Udaletan bai eta Foru Aldundietan.

Euskal Herria desagerrarazi nahi dute eta horretarako euskal herritarrak desagerrarazi behar dituzte. Horregatik inposatzen dizkigute beraien ikurrak, gureak bailira hartu ditzagun, gureak direla sinetsi dezagun. Gure ikurrekin batera agertzen dizkigute, hasieran pareko bailira, ondoren mendeko izateko. Geurea Ikurriña! Ikurrinak Euskal Herri osoa eta euskal gizartearen gehiengoa batzen duen bitartean, espainiar banderak, inposaketa, errepresioa eta erabakitzeo dugun eskubidearen ukazioa barnebiltzen ditu. Hego Euskal Herrian, bandera espainiarra da gatazka eta talka sortzaile den ikurra.

Euskal Herritarroi dagokigu gureak diren nortasun ikurren defentsa burutzea. Ez gara espainiarrak ez eta frantsesak, euskal herritarrak gara eta gure herriaren eta bere etorkizunaren jabe izan nahi dugu.

Hau dela eta ondorengo adierazpenak aurkezten dizkiogu osoko bilkurari onar ditzan:

- Udal honetatik, euskal nortasuna eta gure nazioaren izatea ukatu nahi dutenen aurrean zutitzeko deia luzatzen diogu euskal jendarteari. Inposaketan aurrean herri gisa erantzutea ezinbestekoa da eta zentzu honetan antolatzen diren egitasmo guztietan parte hartzeko deia luzatzen dugu.
- Udaletik, Euskal Herriaren aitortza eta burujabetza lortzeko lan egin, eta euskal herritarron nortasun eta identitate zeinuak sustatzeko konpromisoa hartzen dugu. Nazio gisa agertzen gaituzten ikurrak babestu eta zabalteko neurri zehatzak abian jarriaz:
 - o Udal honek, herriko jaietan, Aberri egunean nahiz ikurriñaren inguruan antolaturiko ekitaldien testu inguruan, herritarrei Ikurriña eta euskal ikurrak etxetako balkoietan zintzilikatzeko deia egingo die.
 - o Udal honek, Ikurriñaren erabilera sustatzeko bitartekoak jarriko ditu.
- EUSKAL HERRIA, IZENA ETA IZANA elkar uztartzea ezinbestekoa da gure herriaren etorkizunerako. Horregatik, egunez egun gure izatearen isla diren nortasun ikurrak agertzea, aldarrikatzea eta erabiltzeak bere biziko garrantzia du gure herriarentzat. Bide berean, Euskal Herri osoko herritarrei inposaketari aurre egiteko deia luzatzen dizuegu. Estatuetatik eratorririko inposaketak salatuz eta geureak diren nortasun ikurrak erabili eta zabalduaz. Bakoitzak bere esparrutik euskal herritarron eskubideen defentsan aritzeko beharra agertu nahi dugu.

INPOSAKETARIK EZ! GEUREA IKURRIÑA!